

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NL-ek langileek haien esperientzia profesionala frogatzera bultzatzeko hiru bideo argitaratu ditu

*Une honetan, merkataritza, industria eta etxeko enpleguaren sektoreetako zazpi deialdi daude irekita*

Ostirala, 2018.eko abenduak 28

Nafar Lansarek (SNE-NL) esperientzia profesionalaren akreditazioaren inguruko hiru bideo argitaratu ditu, langileriari, lan bitzan zehar edo formakuntza bide ez formalen bitartez eskuratutako konpetentzia profesionalak errekonozituak ikusteko bide ofizial bat eskeintzeko.

350 pertsona inguru ari dira prestakuntza aktiboen zazpi deialdietan Profesionaltasun Ziurtagiriak eskuratzeko prozesua egiten: [etxeko enplegua](#); [saltoki txikien salerosketa eta kudeaketa ekintzak](#); [tentsio baxua, igogailuak, hozteko instalazioak eta gasa](#) alorretan. 350 pertsona inguruk parte hartzen ari dute bertan.

Gainera SNE-NL-ek [entitate sozial eta enpresa entitateen](#) bidez koalkifikazioak proposatzeko aukera eskeintzen du edo haien [pertsonala edo kideak](#) bultzatu nahi dituzten enpresa edo elkarteei, prozedimendu zehatzak eskatzeko aukera.

1:40 eta 3:40 segundu bitarteko iraupenarekin, bideoek dagoeneko [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) web orrian dagoen informazioa jasotzen dute eta langileriaren artean ezezaguna bada ere, dokumentu baten bidez konpetentzia profesionalak ikusgai egiten dituen eta Estatu mailan baliozkoa formula bat hedatzeko argitaratuak izan dira. Langile baten "egiten jakiteko" gaitasunaren erakusketa honek enplegu bat aurkitzeko aukerak areagotzen ditu.

Gainera, profesio zehatz batzuen erregulazioa dela eta, dokumentu hauek gero eta eskari handiagoa dute, ur-kirolen intalazioetako sorosleak; Haur Zaintza; menpekotasuna duten pertsonen etxeko edo instituzioetako arreta; osasun larrialdia; eta izurriteen kontrolerako zerbitzuen kasuan gertatu den bezala.

### Hiru bideoen hedapena

Bideoak SNE -NL-ren YouTubeko kanalean eta [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es) web gunearen bidez, Profesionaltasun Ziurtagiriak atalean ikus daitezke.

Lehen bideoak azaltzen duen gaia "[Zer da eta zertarako balio du esperientzia bidezko akreditazioak?](#)" da. Esperientzia profesionala baduten baina hura frogatzen duten inongo dokumentu ofizialik ez izanik, enplegu aukerak areagotzeko helburuarekin hura akreditatzea bilatzen

duzen pertsonen arreta bereganatu nahi du bideo honek.

Bigarren bideoak nazionalitate, adin, formakuntza eta lan esperientziaren inguruan bete beharreko [baldintzak](#) zeintzuk diren azaltzen du. Baldintza hauek, lortu nahi diren Ziurtagirien mailaren arabekoak dira, 1., 2. edota 3. mailakoak izan baitaitezke.

Eta hirugarrenak “¿[Nola da prozesua?](#)” galderari erantzuten dio. Nafarroako Gobernuak aldizka koalifikazio zehatzei loturiko kompetentzien akreditazio publikoen deialdiak irekitzen ditu. Prozedimenduak 3 fase ditu: Aholkularitza, ebaluaketa eta akreditazioa.

Bideoak enplegu agentzietan, bai eta sektore ekonomikoko enpleguaren eta erregulazioaren inguruko beste agente batzuen bitartez izango dira aurkeztuak: Nafarroako Gobernuko departamentuak (Industria, Merkataritza, Turismoa, Osasun Publikoa), SNE-NL-ek kontratatutako orientazio eta formakuntza entitateak; zentro integratuak; enpresa agenteak eta agente sozialak; eta kompetentzien akreditaziorako aholkularitza eta ebaluaketarako langileria. Gaztelerazko bertsio bat argitaratu da eta euskarazkoa prestatzen ari dira. Azken zortzi urteetan, 2.600 pertsonak lortu dituzte Profesionaltasun Ziurtagiriak bide honen bitartez.